

INGURUNE DIGITALEKO

INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO GIDA



**GUÍA CONTRA
LAS AGRESIONES
MACHISTAS EN EL
ENTORNO DIGITAL**

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DEL PROYECTO

Amurrioko Udala / Berdintasun Arloa
Juan de Urrutia Plaza, s/n - 01470 Amurrio (Araba)
Tlfn. 945 89 11 61

GIDAREN ERREDAKZIOA
REDACCIÓN DE LA GUÍA

KOMUNIKA (Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak)
eta AMURRIOKO UDALA

GIDAREN DISEINU ETA MAKETAZIOA
DISEÑO Y MAQUETACIÓN DE LA GUÍA

KOMUNIKA (Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak)



Amurrioko Udalak indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko hartu duen konpromiso sendotik sortu da ingurune digitaletako indarkeria matxistak prebenitzeko gida hau. Interneten eta sare sozialen erabilera handitu denez, herritarrei gida hau emateko beharra ikusi dugu. Gidaren helburua prebentzioa da, eta ingurune digitaletako indarkeriei aurre egiteko baliabideak jasotzen ditu. Gainera, sare bidezko indarkeria mota horren zergatietan eta ondorioetan sakontzea ere bilatzen da.

Esta guía de prevención de las violencias machistas en entorno digitales surge del férreo compromiso del Ayuntamiento de Amurrio para luchar contra la violencia machista. Tras el aumento del uso de internet y las redes sociales, planteamos la necesidad de dotar a la ciudadanía de esta guía, que tiene una finalidad preventiva y contiene recursos para hacer frente a las violencias en entornos digitales. Además, también se busca profundizar en las causas y efectos de este tipo de violencia que se da a través de la red.



Hasi baino lehen,

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

** emakumeen kontrako indarkeria, genero-indarkeria, indarkeria matxista edo sexista*

FEMINISMOEN ARABERA HONAKO KOLEKTIBOEN AURKAKO EDOZEIN INDARKERIA MOTA DA INDARKERIA MATXISTA:

Emakumeak

Genero-rolak eta -estereotipoak betetzen ez dituzten pertsonak
(intersexualak, transgeneroak, transexualak)

Sexualitate-eredu heteronormatiboa jarraitzen ez dutenak
(lesbianak eta gayak)

Haur eta gaztetxoak

Kalte fisiko, sexual zein psikologikoak eragin ditzakete, hala nola bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen diren mehatxuak, bortxak edo askatasun-gabetzeak.

GENERO- ESTEREOTIPOZ BETETA:

“Benetako gizonak ez dute negarrik egiten”.

“Gizon bezala borrokatu”

“Emakumeei buruzko filmak ez dira entretenigarriak”.

“Neska horrek futbola nahiago du soinekoak baino, mari-mutila da”.

“Nenaza hutsa zara”.

Zer testuingurutan jazotzen da?

Genero-berdintasunik gabeko sistema batean bizi gara, non emakumeak historikoki diskriminatuta egon diren, emakume izateagatik, eta eskubide ugari ukatu zaizkien.

Oraindik bide luzea dago egiteko, eta desberdintasun-egoerak zein indarkeria matxistak behin eta berriro gertatzen dira. Horregatik, garrantzitsua da identifikatzea, aurre egin ahal izateko.

Antes de nada, ¿QUÉ ES LA VIOLENCIA MACHISTA?

** violencia contra las mujeres, violencia de género, violencia machista o violencia sexista*

LOS FEMINISMOS ENTIENDEN LA VIOLENCIA MACHISTA COMO CUALQUIER TIPO DE VIOLENCIA CONTRA:

Las mujeres

Las personas que no cumplen los roles y estereotipos de género
(intersexuales, transgénero, transexuales)

Las personas que no siguen el modelo de sexualidad heteronormativo
(lesbianas y gais)

Niñas, niños y jóvenes

Pueden ocasionar daños físicos, sexuales y psicológicos, como las amenazas, las violaciones y las privaciones de libertad que se producen tanto en la vida pública como en la privada.

¿En qué contexto se produce?

Vivimos en un sistema desigual en el que las mujeres han estado discriminadas históricamente, por el hecho de ser mujer, en el que se les han negado infinidad de derechos. Aún queda mucho camino por andar y se siguen reproduciendo tanto situaciones de desigualdad como violencias machistas. Por ello, es importante identificarlas para hacerles frente.

LLENO DE ESTEREOTIPOS DE GÉNERO:

“Los hombres de verdad no lloran”.

“¡Pelea como un hombre!”

“Las películas sobre mujeres no son ni entretenidas ni graciosas”.

“Esa niña prefiere el fútbol que los vestidos, es una marimacho”

“Eres una nenaza”

EREMU DIGITALEKO ERASO MATXISTAK

askotariakoak dira eta maiz
ez dakizkigu identifikatzen...

Eduki intimoen lapurreta

Informazio pertsonala biltzea edo lapurtzea, baita aldez aurreko baimenik gabe hori moldatzea eta erabiltzea ere.

Eduki intimoen hedapena

Pertsona edo talde baten informazio pribatua baimenik gabe argitaratzea eta hedatzea, askotan beldurtzeko, umiliatzeko edo mehatxatzeko helburuarekin.

Gorrito-diskurtsoak (misoginia, matxismoa, lesbofobia, homofobia, transfobia, arrazakeria, xenofobia, etab.)

Pertsona zein talde batzuen aurkako gorrito adierazpenak eta aurreiritziak, haien aurkako indarkeria sustatu edota mespretxatu egiten dituztenak, arraza, etnia, erlijio, naziotasun, adin, itxura, sexu-joera, hizkuntza, gaitasun fisiko edo psikologikoa, joera politiko edo moral edo estatus sozioekonomikoarengatik.

Grooming

Interneteko baliabideen bidez heldu batek adingabeen aurrean gaztea dela simulatuz abusatzea.

Hackeoa edo krakeoa

Hacker batek zibersegurtasun sistema batean sartzea lortzen duenean gertatzen da hackeoa; krakeoa, aldiz, helburu maltzur edo delituzkoekin egiten denean gertatzen da.

Nortasunaren lapurreta edo profil faltsuen sorkuntza

Pertsona baten nortasuna aldez aurreko baimenik gabe erabiltzea.

LAS AGRESIONES MACHISTAS DIGITALES

son múltiples y a menudo no sabemos identificarlas...

Hurto de contenido íntimo

Recopilación o robo de información de carácter personal, así como su utilización y modificación sin autorización previa.

Difusión de contenido íntimo

Publicación de información privada de una persona o un grupo sin consentimiento, a menudo con el objetivo de intimidar, humillar o amenazar.

Discursos de odio (misoginia, machismo, lesbofobia, homofobia, transfobia, racismo, xenofobia, etc.)

Expresiones de odio y prejuicios contra personas o grupos que fomentan la violencia contra ellas y/o las desprecian por razón de raza, etnia, religión, nacionalidad, edad, apariencia, orientación sexual, lengua, capacidades físicas o psicológicas orientación política o moral o estatus socioeconómico.

Grooming

Abuso realizado a una o un menor de edad por parte de una persona adulta simulando ser joven a través de los medios de Internet.

Hackeo o crackeo

El hackeo se produce cuando un hacker penetra un sistema de ciberseguridad, mientras que el crackeo sucede cuando los fines son maliciosos o delictivos.



Sexu-esplotaziorako salerosketa atzematea

Adibidez, lan-eskaintza faltsuak eginez edota nortasuna lapurtuz.

Ziberdifamazioa

Pertsona edo kolektibo baten ohorea, estimazioa edo ospea kaltetuko duen gertakari bat hari egozte Interneten.

Ziberestortsioa

Baliabide informatikoen bidez indarkeria edo larderia erabiltzea, biktimak ekintza bat egin dezan bere edo besteren kalterako, webgunearen bidez eta ohikoan izaera ekonomikoa duena.

Ziberjazarpena / Ziberbullyinga

Baliabide digitalak erabiltzea pertsonak edo taldeak molestatzeko edo jazaritzeko, eraso pertsonalak eginez, informazio intimoa edo faltsua zabalduz edota hizkuntza mespretxagarria, larderiazkoa edo mehatxagarria erabiliz, besteak beste.

* Lanean gertatzen bada, mobbing deitzen da

Zibermehatxuak

Ziberespazioan gertatzen diren jarduera maltzurra, bertan mugitzen den informazioa eskuratzeko, helburu inmoral eta ekonomikoekin: pertsonen datuak baliatzea horiek manipulatzeko eta kontrolatzeko.

Ziberzelatatzea

Tresna zibernetikoen bitartez pertsona baten informazioa eta portaera monitorizatzea, haren pribatutasuna urratuz. Gailu mugikorren kamera edota GPSa baliatu ditzakete.

Gogoratu indarkeria matxista beste zapalkuntza batzuen eskutik joan daitekeela, klasismoa eta arrazakeria kasu.



Robo de identidad o creación de perfiles falsos

Uso de la identidad de una persona sin consentimiento previo.

Captación de trata con fines de explotación sexual

Por ejemplo, mediante ofertas de trabajo falsas y robo de identidad.

Ciberdifamación

Imputación a través de Internet de un hecho a una persona o colectivo, que menoscabe su honor, estimación o fama.

Ciberextorsión

Uso de la violencia o la intimidación mediante medios informáticos con el fin de que la víctima realice un acto en perjuicio propio o ajeno, tramitado a través de la web y generalmente de carácter económico.

Ciberacoso / Cyberbullying

Utilización de medios digitales para molestar o acosar a personas o grupos mediante ataques personales, divulgación de información íntima o falsa y el uso de un lenguaje despectivo, intimidatorio o amenazante, entre otros.

* Si se produce en el trabajo, se llama mobbing

Ciberamenazas

Actividades malignas que se producen en el ciberespacio, con el objetivo de adquirir la información que circula por el mismo y utilizarla con fines lucrativos e inmorales: valerse de los datos para manipular y controlar a las personas usuarias.

Cibervigilancia

Monitoreo de la información y comportamiento de una persona mediante herramientas cibernéticas, violando así su privacidad. Pueden hacer uso de la cámara o GPS de los dispositivos móviles.

Recuerda que la violencia machista puede ir de la mano de otras formas de opresión, como el clasismo y el racismo.

ADIBIDEAK

**"Niri ere itsusi, gizen
eta puta deitu
didate sare sozialen bidez"**

"A mí también me han llama-
do fea, gorda y puta a través
de las redes sociales"

**"Nik ere
nahi ez nituen
sexu-irudiak jaso ditut
baimenik eman gabe"**

"Yo también he recibido
imágenes sexuales
indeseadas sin
consentimiento"

**"Nire eduki pertsonalak
argitaratzearekin ere
mehatxatu naute"**

"También me han
amenazado con publicar
mi contenido personal"

**"Niri buruzko profil
faltsu bat ere sortu dute
Instagramen"**

"Y también han creado un perfil
falso sobre mí
en Instagram"

**"Niri ere pasahitz
pertsonalak eskatu
dizkidate norekin hitz
egiten dudana kontrolatzeko"**

"A mí también me han pedido
mis contraseñas personales
para controlar con quién
hablo"

**"Nire argazki intimoak ere
erakutsi eta bidali dituzte
nire baimenik gabe"**

"También han enseñado y
enviado fotos íntimas mías
sin mi consentimiento"

ERASO HAUEK EZEZAGUNEK EGITEN DITUZTE BETI ?

Ez, askotan eremu intimoan ere gauzatzen dira, nahiz eta batzuetan ez identifikatu.

Erasoa ere bada...

¿LAS REALIZAN SIEMPRE PERSONAS DESCONOCIDAS?

No, en muchas ocasiones se producen en los espacios íntimos, aunque a veces no las identifiquemos.

También es un abuso...



Zer ari zara konektatuta ordu hau-etan? Norekin ari zara hitz egiten?

¿Qué haces conectada a estas horas? ¿Con quién hablas?

01:05 ✓

Kaixo laztana, zertan zabiltza? norekin zaude?
bidaliko didazu zure kokapena?
badakizu lasaiago geratuko naizela

**Kaixo laztana, ¿qué haces? ¿con quién estás?
¿me envías tu ubicación? ya sabes que así
me quedo más tranquilo...**

18:25 ✓

Nudeak bidali behar dizkidazu.
Ikusi nahi zaitut 🙄

**Te toca enviarme nudes.
Quiero verte 🙄**

21:15 ✓

Zergatik ez didazu erantzuten?

¿Por qué no me respondes?

21:45 ✓

**EZ DA
MAITASUNA,
KONTROLA DA!**

**NO ES AMOR,
¡ES CONTROL!**


Zuri buruzko meme-profil berria sortu dute.
Gaizki sentitzen naizelako kontatzen dizut.

**Estos han vuelto a crear un perfil de memes
sobre ti. Te lo cuento porque me siento mal.**

17:02 ✓

WHATSAPP

Zu ere
halako talde
batean zaude?
Horrelako hizketaldiak
izan dituzu?
**EZ GELDITU BESOAK
GURUTZATURIK ETA
ESAIOZU EZETZ
INDARKERIA
MATXISTARI**



¿Tú también estás en
un grupo como este?
¿Has tenido conversaciones
de este estilo?
**NO TE QUEDES CON LOS
BRAZOS CRUZADOS Y DI NO
A LA VIOLENCIA
MACHISTA**

ETA ERASOA NEUK PAIRATZEN BADUT, ZER EGIN DEZAKET HORREN AURKA? Y SI SOY YO QUIEN SUFRE LA AGRESIÓN, ¿QUÉ PUEDO HACER FRENTE A ELLA?

1

Laguntza eskatu gertuko pertsoneri.

Pide ayuda en tu círculo cercano.

Batzuek lotsa sentitzen dute laguntza eskatzeko orduan, uste dutelako ez dutela behar bezala jokatu edo ez dituztela beren buruak behar beste babestu. Beldurra ere sentitu dezakete, edo arazoa areagotuko dutela pentsatu. Funtsezkoa da jakitea errua ez dela INOIZ biktimarena, mundu analogikoan bezala, eta **EZ DAGOELA BAKARRIK**. Algunas personas sienten vergüenza de pedir ayuda porque piensan que no han actuado debidamente o que no se han protegido a ellas mismas lo suficiente. También pueden sentir miedo o pensar que van a agravar el problema. Es importante saber que, al igual que en el mundo analógico, la culpa **NUNCA** es de la víctima y que **NO ESTÁ SOLA**.

2

Laguntza bilatu zerbitzu espezializatuetan.

Busca ayuda en servicios especializados.

Kasu zehatz batean hobekien lagunduko zaituztenak dira (salaketa jartzen, gomendioak ematen, etab.). Gida honen amaieran hainbat baliabide aurkituko dituzu.

Son quienes mejor te ayudarán en un caso concreto (para tramitar una denuncia, aconsejarte, etc.). En esta guía encontrarás varios recursos.

3

Erasoaren frogak batu.

Recopilación de pruebas de dicha agresión.

Askotan, ez dakigu hainbat egoera indarkeria matxista izan daitezkeela. Gorde jasotako mezuak, egindako erasoaren froga gisa erabil baitaitezke.

A menudo, no somos conscientes de que algunas situaciones pueden llegar a ser violencia machista. Guarda los mensajes recibidos, ya que pueden servir como prueba.

4 Erasotzailea blokeatu. Bloquear a la persona agresora.

Sare sozial, aplikazio eta programa informatiko bakoitzak blokeatzeko aukera propioak ditu. Gainera, erabiltzaile ezezagunen mezuak baztertzeko aukera dago gehienetan, baita norberaren profila pribatuan jartzeko ere.

Cada red social, app o programa informático tiene sus propias opciones de bloqueo. Además, en la mayoría de casos existe la opción de rechazar los mensajes de desconocidos, así como de poner el perfil en privado.

5 Erasoa salatu. Denunciar la agresión.

Hurbilen duzun ertzain-etxera jo dezakezu. Komeni da honakoa eramatea:

> Eskura dagoen dokumentazio guztia. Hobe da kopia digitala egitea (CD edo pendrive).



> Ustezko erasotzaileekin komunikatzeko moduak:

- Sare sozialen kasuan, profilen URLak, iruzkinak, postak edo multimedia-
edukia.
- Mezu elektronikoen kasuan, iruzurrezko posta-kontua, goiburu teknikoetan
jasotako informazioa eta mezuen gorputza.
- Mezularitza-zerbitzuen kasuan (Whatsapp, Telegram, etab.), elkarriketak.
- Telefono bidezko elkarriketen kasuan, telefono zenbakiak aurrizkiarekin.

Puedes acudir a la comisaría de la Ertzaintza más cercana.

Es recomendable aportar:

- > Toda documentación disponible. Es preferible realizar una copia digital (CD o
pendrive).
- > Las formas de comunicación con los presuntos autores:
 - De las redes sociales, las URLs de los perfiles, comentarios, posts o contenido multimedia.
 - En el caso de correos electrónicos, la cuenta de correo fraudulenta y la información
contenida en las cabeceras técnicas y el cuerpo de los mensajes.
 - En caso de los servicios de mensajería (Whatsapp, Telegram, etc.), las conversaciones.
 - En caso de conversaciones telefónicas, los números de teléfono con prefijo telefónico.



Eta eraso baten lekukoa bazara? **¿Y si presencias una agresión?**

- 1. Eskaini laguntza eraso pairatu duenari eta esaiozu bere segurtasunak arduratzen zaituela.**
 - 2. Galdetu zelan dagoen, zaintza erdigunean jarri. Ondoren, galdetu ea zer egin nahi duen arazoarekin. Aukeratzen duena aukeratzen duela, babestu.**
 - 3. Ez jarri zalantzan kontatutakoa. Ez bota errua, ezta lotsatu ere. Esaiozu beti egongo zarela bere ondoan.**
 - 4. Lagun diezaiokeen norbaitekin hitz egitea gomendatu.**
 - 5. Salaketa jartzera lagundu, hala erabakitzen badu.**
-
- 1. Ofrece ayuda a quien la sufre y dile que te preocupas por su seguridad.**
 - 2. Pregúntale qué tal se encuentra, pon los cuidados en el centro. Después, pregúntale qué quiere hacer. Defiéndela decida lo que decida.**
 - 3. No pongas en duda lo que te cuenta. Tampoco la culpabilices ni la avergüences. Dile que siempre estarás allí para ella.**
 - 4. Recomiéndale hablar con alguien que pueda ayudarle.**
 - 5. Acompáñale a denunciar, si así lo decide.**

ETA NEUK, ZER EGIN DEZAKET? Y YO, ¿QUÉ PUEDO HACER?

- + **Ez erabili inoren irudirik, bideorik, elkarrizketarik edo informazio pribaturik xantaia egiteko edo min emateko. Ez partekatu inoren irudirik, bideorik edo informaziorik haren baimenik gabe. No utilices imágenes, vídeos conversaciones o información privada de nadie para chantajear o hacerle daño. Ni compartas imágenes, vídeos o información sin su autorización.**
- ✧ **Norbaitek irudi edo bideoren bat bidali badizu, zuri bidali dizu. Ez zabaldu ezta inori erakutsi ere! Pertsona baten intimitatearen aurka egitea DELITUA da.** Si una persona te ha enviado alguna imagen o vídeo, te lo ha enviado a ti. ¡No lo difundas ni se lo enseñes a nadie! Atentar contra la intimidad de una persona es un DELITO.
- ✧ **Norbaiten irudiak edo bideoak biralak egiten direnean, ez bota errua bertan agertzen den pertsonari.** Cuando se viralizan imágenes o vídeos de alguien, no culpabilices a la persona que aparece en ellos.
- ✧ **Arbuioa adierazi** Eduki matxista, sexista, arrazista, xenofobo, homofobo, transfobo eta abarren aurka. **Muestra rechazo** cuando recibas contenido machista, sexista, racista, xenófobo, homófobo, tráfobo, etc.

Batzuetan, isiltasuna onarpen seinaleztat hartzen da. Norbaitek eduki iraingarriren bat bidaltzen badizu, jakinarai iezaiozu!

En ocasiones, el silencio se entiende como una forma de aprobación. Si alguien te reenvía algún contenido ofensivo, ¡házselo saber!

- ✧ **Ez erabili anonimotasuna inor iraintzeko, jazartzeko edo umiliatzeko. Benetako izena erabiltzen ez baduzu ere, Interneteko jarduerak arrastoa uzten du. No utilices el anonimato para insultar, acosar o humillar a nadie.** Aunque no uses tu nombre real, tu actividad en internet deja huella.

EREMU BIRTUALA BIZITZA ERREALAREN PARTE DA. EZ ESAN EDO EGIN "BENETAKO" BIZITZAN EGINGO EZ ZENUKEEN EZER. PROFILEN ATZEAN PERTSONAK DAUDE ETA EGITEN DUZUNAK ONDORIOAK DITU.

EL ESPACIO VIRTUAL FORMA PARTE DE LA VIDA REAL. NO HAGAS NI DIGAS NADA QUE NO HARÍAS EN LA VIDA "REAL". DETRÁS DE LOS PERFILES HAY PERSONAS Y LO QUE HACES TIENE CONSECUENCIAS.

UDALERRIAN ESKURA DAUDEN BALIABIDEAK

RECURSOS DISPONIBLES EN EL MUNICIPIO

▶ Amurrioko Udaleko Berdintasun Zerbitzua.

Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Amurrio.
berdintasuna@amurrio.eus, 945 891 161

▶ Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzua.

Servicio de Atención a la Ciudadanía.
945 891 161

▶ Indarkeria Matxisten Biktimentzako Eusko Jaurlaritzaren Arreta Zerbitzua, 24 orduz egunean.

Servicio 24 horas del Gobierno Vasco de Atención a Mujeres Víctimas de Violencia Machista.
900 840 111

LARRIALDI KASUETAN. EN CASOS DE EMERGENCIA:

▶ 112 telefonoa edo SOS Deiak zerbitzuaren APPa, egunean 24 orduz eta asteko 7 egunetan.


Teléfono 112 o la APP de SOS Deiak, servicio 24 horas. y los 7 días de la semana.

▶ Udaltzaingoa.

Policía local.
945 038 260 / 636 469 288

▶ Ertzaintza, Ludio.

Ertzaintza, Llodio.
944 063 860



ERAKUNDE PUBLIKOAK INSTITUCIONES PÚBLICAS

► Hegoak Foru Zerbitzua

Orientazio juridikoa eskaintzen die emakumeei eta laguntza psikologikoa indarkeria matxistak jasan dituztenei. Amurrioko Udaleko HAZen eska dezakezu hitzordua: **945 891 161**. Nahiago baduzu, Laudion (94 403 48 50) eta Gasteizen (**945 15 10 15**) ere badago.

*Ofrece orientación jurídica a mujeres y atención psicológica a aquellas que han sufrido violencias machistas. Puedes pedir cita en el SAC del Ayuntamiento de Amurrio **945 891 161**. Si lo prefieres, puedes acudir en Llodio (94 403 48 50) o en Vitoria-Gasteiz (**945 15 10 15**).*

► Berdindu! - berdindu.araba@gmail.com

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei eta haien ingurukoei informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua.

Servicio del Gobierno Vasco de información y atención a personas lesbianas, gais, trans, bisexuales e intersexuales, así como a su entorno.

► Eraberean - www.eraberean.net

Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea.

Red para la igualdad de trato y la no discriminación.

<http://www.eraberean.net/>

► Biltzen - www.biltzen.org

Gizarteratze eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua

Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural.

► Zuk esan,

Haurtzarorako eta nerabezarorako laguntza zerbitzua.

Servicio de ayuda a la infancia y adolescencia.

116111 tfno. <https://labur.eus/ZukEsan>



IRAKURTZEKO GEHIGARRIAK


LECTURAS ADICIONALES

- ▶ **Eusko Jaurlaritzan gailu elektronikoak eta gizarte sareak**
SEGURTASUNEZ erabiltzeko gomendioak. Guía de recomendaciones para un uso **SEGURO** de los dispositivos y de las redes sociales en el G.V.
<https://labur.eus/GomendioDigitalak2014>

- ▶ **Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan: EAEko gazteen sare sozialen erabilpenerako hurbilketa kualitatiboa**
La desigualdad de género y el sexismo en las redes sociales: Una aproximación cualitativa al uso que hacen de las redes sociales las y los jóvenes de la CAPV.

<https://labur.eus/SexismoaSareetan2013>

<https://labur.eus/SexismoEnRedes2013>



**Berdintasun
teknikaria**

Técnica de igualdad
945 891 161

HAZ - SAC

945 891 161

Larrialdiak

Emergencias.
112.

Udaltzaingoa

945 038 260

Ertzaintza

944 063 860

Izan ESKURA

Moztu irudi hau eta zure sakelako atzealdean jarri.
Argi utzi edozein indarkeria matxistaren aurka egiten zaudela!

Corta esta imagen y colócala en el reverso de tu móvil.
¡Deja claro que rechazas todo tipo de violencia machista!

